

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 5397

*EBAZPENA, 2024ko azaroaren 18koa, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariarena, zeinaren bitartez jendaurrean jartzen baita Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroa, BiziLab, sortzen duen eta haren lanpostuen zerrenda onartzen duen dekretu-proiektua.*

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen du Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroa, BiziLab, sortzen duen eta haren lanpostuen zerrenda onartzen duen dekretu-proiektu bat egitea.

Proiektu honen xedea irakaskuntzari laguntzeko gaur egun dagoen zerbitzu-sarea eguneratzea da, antolaketa-egitura, funtzionamendua, ekonomia- eta aurrekontu-gaien eta arlo desberdinen kudeaketa eta ikastetxe berriko langileak definituz.

Jendaurreko informazioaren ebazpen hau eman den egunera arte, izapide hauek egin dira:

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatutakoa betez, herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari dagokionez, arauaren testua egin aurreko kontsulta publikoa bideratu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan. Bertan, arauaren eraginpeko herritarren iritzia jaso da, bai eta arauaren eraginpean dauden eskubide edo interes legitimoak dituzten pertsonak biltzen edo ordezkatzan dituzten erakunde edo elkarteena ere, baldin eta haien helburuek arauaren xedearekin lotura zuzena badute.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoa betez, Hezkuntzako sailburuak prozedura hasteko agindua eman zuen 2024ko apirilaren 25ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 16. artikulua esleitutako eskumenei jarraikiz.

Era berean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoari jarraikiz, Hezkuntzako sailburuak izapidetzen ari den dekretu-proiektua aldeztatik aurreratik onartzeko agindua eman zuen 2024ko maiatzaren 10ean.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, lege horretan jasotzen den jendaurreko informazioaren izapidea egin behar da, baldin eta herritarren eskubide eta interes legitimoak zuzenean eragiten badie eta artikulua honetan aurreikusitako salbuespen-kausarik ez badago.

Horretarako, jendaurrean jartzen da Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroa, BiziLab, sortzen duen eta haren lanpostuen zerrenda onartzen duen dekretu-proiektua. Jendaurrean jarriko da hogeit hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 16. artikulua emandako eskumenei jarraikiz, hau

2024ko azaroaren 25a, astelehena

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroa, BiziLab, sortzeko eta haren lanpostuen zerrenda onartzeko dekretu-proiektua, hogeita (20) egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, eta herritarrek alegazioak aurkeztu ahal izateko, dekretu-proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Hezkuntza Saileko Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzan (Donostia-San Sebastián kalea 1, Vitoria-Gasteiz) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

Hirugarrena.– Alegazioak aurrez aurre eta modu elektronikoaan aurkez daitezke, aurreko atalean aipatutako helbideetan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 18koa.

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaria,  
MIKEL JUARISTI IZAGUIRRE.